

## SEGMENTAZIOA


**Irizpide geografikoak:** Gure produktua hiri ertaina eta zona geografiko lauan bizi diren pertsoneri zuzenduta dago. Izan ere, bizikleta bat askoz gehiago erabiliko da eremu lau batean, erliebe gorabeheratsu batean baino. Amsterdam oso hiri aproposa da honen azalpenaren adibidea emateko. Izan ere, Amsterdameko erliebea oso laua da, eta ia biztanleria guztia erabiltzen du bizikletak.



**Irizpide demografikoak:** Jende gazteentzat eta helduentzat zuzenduta dago. Gure ideiak ez du sexuan, arrazan edota kultura bereizpenik egiten. Adinaren arabera, printzipioz 13 eta 55 urte bitartekoei zuzenduta dago. Adin horretako pertsonak bizikleta erabiltzea ohikoena delako. Baina salbuespenak egon ahal dira ere.



**Irizpide psikografiko:** Energia leku askotik lortu dezakegu eta bizikleta honen bitartez doako eta naturala den energia produzitzen duen sistematik lor dezakegu. Hau jakinda, ingurumenarekin kontzientziatuta dauden pertsonentzat zuzenduta dago. Gero eta gehiago erabiltzen baduzu gero eta energia gehiago lortuko duzulako. Hala eta guztiz ere, ez da beharrezkoa bizikleta hau erabiltzen duena arrazoi horregatik izatea, baina hori pizgarri bat izan daiteke bezeroentzako.



**Irizpide sozioekonomikoa:** Diru-sarrerak daukan pertsonak baina ez dira oso altuak izan behar. Bizitza-estiloa kontuan hartuz, bizimodu osasuntsua eta ingurumenarekin kotzientatuta dauden jendearentzat zuzenduta dago.

**Jokabide-irizpideak:** Atal honetan, gure produktua nahiko librea da. Ordu-tegiari dagokionez esaterako, bizikleta erosterakoan, nahi duzunean erabili dezakezu eta nahi duzun maiztasunarekin.

